

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Lesaka.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Lesaka.

- 1804 *Aize otza, garizuma-aizia.*  
Garizuma beti neguan izaten baita.
- 1805 *Aundi nai, ta ezin izan.*
- 1806 *Bereak beretzat, bertzenak erdibana.*  
Jende berekoiak nai du ori.
- 1807 *Dezakenak dezake: ez dezakenak balezake!*
- 1808 *Erran, eta egin.*  
Itzema atxiki, itza ez jan ta ez autsi.
- 1809 *Errezu zuzen ta nik egiñen.*
- 1810 *Errezua luze, yana labur.*  
Beste errien batean ola esaten dute: "Alako etxean: Errezua labur, yana luze, yornala segur". Etxe artako morroi-neskameak pozik...
- 1811 *Erromako zubi gañian esdribiturik omen dago: "Bakotxak beria bere".*
- 1812 *Ipurdiko gaitza izan du.*  
Kalte edo ezbear aundia.
- 1813 *Yaiotzen denak iltzia zor.*
- 1814 *Idiak nekatu, ta gurdiak negar.*  
Ler gaizto egiten ari denari, oraindik errista.
- 1815 *Kanpoko etxiak, eltziak bete urrez: ondora yoan ta bat ere ez.*
- 1816 *Mendi onek zenbat saski lur ote ditu? -Saskia aundia bada, bat.*
- 1817 *Martxoko izarrak eraman du nere bior zarra.*  
Martxoko elurrei ta otzei beldur...
- 1818 *Nausi onak kabi ona.*
- 1819 *Nik zure alaba maitatu? Ori iñork ezin ukatu.*

- 1820 *Nolako gurasoak, alako umiak.*
- 1821 *Nola etorri, ala yoan.*  
Aise irabazia, aise galtzen.
- 1822 *Nolako pipa, alako toxa.*  
Toxa = pipazalen belar-zorrotxoa.
- 1823 *Nor nolako, izatia alako.*
- 1824 *Non da soñua, an da nere zangua.*
- 1825 *Ortotsa ari duela(r)ik, ganbarako artuak buelta ematen.*  
Alako asotsa!
- 1826 *Prantzesak erran omen zion itsasoari: "Ezkon adi, ezkon adi:  
mantsatuko aiz bai.*
- 1827 *San Marko: Kazkabarra ortzetan.*
- 1828 *San Primo egunian urik egiten badu: berrogei egunez euria.*  
Egia ote da? San Primo garagarrillaren 9'an da.
- 1829 *Subiak, bera bezalako umiak.*
- 1830 *Ura yoan ondoan presak ez du balio.*
- 1831 *Zeruak ez du abe bearrik.*
- 1832 *Zarren adiñean urte birakatuak izaten dira.*  
Zarrak, den baño zarrago iduri.